KALAPUTXI

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
199. zenb. 2019ko azaroa



Asier Juaristi Lesbosen

Zinia Mutrikun (II)

Abendurock 15 urte

Azaroa hotz, negua motz

Azaroak 25

marisa martinez esparza

35 urte gazteentzako antzerkigintzan

EROSKI city

Gure bezeroengandik beti hurre









okindegia · fruitategia · harategia · urdaitegia · eta beste
asteazken eta ostiraletan erosketak etxera eramateko aukera
San Agustin 10 · Mutriku · Tel. 943 60 36 11

Igualatorioarekin eta
Osakidetzarekin
lan egiten dugu

Audioprotesista
egunero zentroan
Audiometriak doan

OPTIKA VITORIA
OPTIKA • AUDIFONOAK

ERRIBERA 16 • 48700 ONDARROA • 946134138 • mvitoria@cnoo.es

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa..... 943 60 43 00
DYA zentrala..... 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai 943 19 50 26
..... 626 61 13 92
Lon Apraiz 943 60 32 50
..... 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar) 943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar) 943 74 11 77
Yudego (Elgoibar) 943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar) .. 943 74 12 77
Ana Mandiola (Eibar)..... 943 82 05 33

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa 943 60 70 48
..... 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte 943 60 34 10
Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 19 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 35 45
Udal Euskaltegia 943 60 37 80
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
ANTON taxia 666 22 19 99
XABI taxia 656 28 90 26
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 902 10 12 10
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 902 54 32 10
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87
Bikario etxea 943 60 39 88
Santa Catalina eleiza 943 60 32 00

Iritzixa

Amaia Andonegi Egurbide

LAPIKOA BOR-BORKA

SUKALDE ASKOTAKO LAPIKOAK dabiltza aspaldian bor-borka, eta etxeko lapikoari egingo diot kasu. SALDA BADAGO izenpean V. Jardunaldi Feministak izan dira azaroaren 1ean,2an eta 3an, Durangon, eta han izandako azalpen-eztabaida-tailer-hausnarketa eta ikuskizunak oso aberatsak eta pizgarriak izan direla adierazi nahiko nuke.

Aberatsa izan da zer aukera ezin hobea izan baitugu emakumeen kolektibo mordo batek aurrez-aurre azaldu dizkigutelako, egunerokoa bizitzatik abiatuta, beren errealitate desberdinak, hala nola: Pentsiodunak, nekazari emakumeak, etxeko langileak, arabiarrak, ijitoak, beste hainbat migrazio egoeratakoak, ezindu fisikoak, gazteak, Hegoaldeko nahiz Iparraldeko Feministak... Gaur egungo egoerak enfokatzeko gai garrantzitsuak tratatu dira: Gorputzak eta sexualitateak (genero binarismoa kuestionatzea, zilegitasunak, transfobiak, bollera subjektuaren garrantzia...); Indarkeriarik gabeko bizitzak; Justizia feminista; MUNDU MARTXA; Feminismo instituzionala...

Indarberrituta etorri gara zer benetan animoa altzateko moduko gertakizuna izan baita. Ibilian dabiltzan/gabiltzan andrak asko garela ikusi eta erakutsi delako, horrek duen indar kutsakorrarekin; Mugimendura gazteak apuntatu direlako, itzelezko gogo biziz eta irudimenez beren bidea egiten doaz; Itzelezko ahalegina, lana eta antolaketak fruitua eman duelako, beraz badira itxaropentsu egoteko motiboak. Ni neu asko poztu nauten beste bi gauza ere izan dira: bata, euskarak zentralidadea edukitzea, eta bestea, bazkariak bertako produktu agroekologikoekin eginak izatea. Horrelako gauzak adierazten didate benetan serio ari garela eraikitzen etorkizunerako alternatiba ganorazkoa.

Ideia orokor batzuk emateagatik, adibidez: Mugimendu feministatik errazago lortu ditzakegu helburuak bakarka baino. Esklusiorik gabeko mugimendua eraiki behar dugu, emakume bat ere gelditu ez dadin atzean edo bazterrean. Zubiak egin eta aliantzak hitzartu beharko ditugu beste emakume taldeekin edo kolektiboekin. Behetik gora eraiki nahi dugu mugimendua eta berdinetik berdinera. Egunerokotasunean egindako geure aldaketa txikiek badute garrantzia. Euskal Herrian emakumeok agenda politikoa idatzi beharra daukagu. Eta... bukatu beharra daukadalako, azkena: BIZITZA ERDIGUNEAN JARRI BEHAR DA. Bestela esanda, EZ DAGO BURUJABETZARIK FEMINISMORIK GABE.

Jakina, errazagoa da esatea egitea baino. Hala ere iparra zein den jakin beharra daukagu eta ziurrenik datozen denboretan aurrera egiteko derrigorrezkoa izango da agenda prest edukitzea. Baina orain azaroaren 25a dela eta, gaur eta hemen EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ! ERASORIK EZ ERANTZUNIK GABE!!

www.lurraldebus.eus

900 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:50	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

						ostr. lanegun
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25	

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	Ig 20:30	Lr 21:00
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	Lr 7:15	Ig 8:15	orduro	20:15	21:25	Lr 22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:20
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	Lr 6:50	Ig 7:45	orduro	Lr 21:45	Ig 19:45
Eibar	7:00	8:00	orduro	22:00	20:00
Mendaro	7:35	8:35	orduro	22:35	20:35
Mutriku	7:55	8:55	orduro	22:55	20:55

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	Lr 8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	Lr 9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	Lr 22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	Lr 9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	Lr 8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	12:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	12:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:

www.kalaputxi.eus/garraioa

DOMUSANTU EGUNA

Aurten ere, ohiturari jarraituz, lorez eta apaingarriz bete da hilerria, eta jende andana igaro da bertatik familiako hildakoei agur egin eta errezoren bat egiteko. Hala ere, aldatzen doa poliki-poliki hilerriaren ikuspegia. Lurra desagertzen doa, marmolezko harlauzek ordezkatuta, desagertu dira burnizko kurutzeak eta bakandu zurezkoak. Ez dago jada, haurrentzako lur-eremua, bere ordez kolunbarioak jarri dira. Desagertu dira arreta erakartzen zuten esaldi sakon haiek: "*Zu gaur zara ni izan nintzena, eta zu izango zara ni gaur naizena*" edo "*Vita mutatur, non tollitur*" edo batzuentzat sakontasun berdina zuen "*Aquí yace un forofo del Madrid*". Jarraitzen dute, ostera, barnetik sortzen diren esaldi eta poematxoek, eta grabazioak ugaritu dira.

Desagertu dira umeen lur-eremuaren inguruan zeuden bi agin haiek, euskaldunontzat sakratuak direnak eta beren fruitu gorriekin lurra ia estalita uzten zutenak: lurra altxatu eta garbitzen zeuden bitartean, haizete handi batek eraitsi zituen. Jolasten ibiltzen ginen fruitu haiekin, oso pozoitsuak zirenik jakin gabe. Beste bi daude, baina ez dute ematen fruiturik.

1882ko data da erreferentzia zaharrena, eta aspalditik ezarria dago eremu horretan berdintasunaren legea. Berdin da bonetedun edo kapeladun, "excelentísimo" edo "don" izatea, lore sorta apalak edo erramu garestiak gainean jartzea, denak daude isilik, eta, agian, ahaztuak.

Hausnarketarako unea...



KALAPUTXIK 18 URTE

Urrian 18 urte bete ziren Kalaputxi mutrikuarron etxeetara iristen hasi zenetik. Ordutik, hamazortzi urtetan zehar, hilero-hilero, ez da falta izan euskarazko irakurgaia gure etxeetan, herriko gaiak, herriko kontu zaharrak eta herriko pertsonaiak piska bat hobeto ezagutzeko.

Abenduko aldizkaria berrehungarrena izango da. 200. Kopuru borobila.

Urteurrena eta zenbaki hain borobila aprobetxatuz, irakurleei aukera eman nahi diegu ***Kalaputxi*** aldizkariaren inguruan adierazi eta irakurle guztien artean partekatzeko. Esaldi bat, mezu bat, hausnarketa labur bat...

Nork bere ustea, iritzia eman ahal izango du, onak eta txarrak, zuzentzekoak eta sakontzekoak adierazteko aukera izango du.

Hortaz, irakurle, anima zaitez eta egin zure ekarpena abenduaren 6a baino lehen helbide hauetara idatzita: **kalaputxi2001@gmail.com** edo **aldizkaria@kalaputxi.eus**, 635748393 zenbakira wathsappa idatzita edo Ansorregi zapatadendan paperean utzita.

Aurrerantzean, gutunentzat gordetako orri honetan, argitaratzeko gutunik jaso ezik, hausnarketarako espazio bat eskaini nahi zaio irakurleari. Argazki bat eta haren inguruko hausnarketa idatzia bidali beharko dira ohizko bideetatik. Idatziaren luzera, 200 hitz edo 1500 karaktere (espazioak barne).

Bidaltzean argazkia eta testua nork bidaltzen duen adierazi beharko bada ere, aldizkarian sinatu gabe argitaratu ahal izango da.

kalaputxi2001@gmail.com
aldizkaria@kalaputxi.eus

Argitaratzailea **Karenka Komunikazio Elkartea**
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393
e-posta **kalaputxi2001@gmail.com / aldizkaria@kalaputxi.eus**
Web gunea: **www.kalaputxi.eus** Bloga **www.kalaputxi.blogspot.com**
Laguntzaileak **Mutrikuko Udala** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kolaboratzaileak **Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga, Ibon Aginaga**
Tirada **2.200 ale** Lege Gordailua **SS-787/01** ISSN **1579-4792**
Inprimategia **EUSKALINPRI** Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala Gipuzkoako Foru Aldundia

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian hirugarrenek adierazitako esan-iritzien erantzukizunik.

ASIER JUARISTI

“Handik itzulitakoan beste modu batera aztertzen dituzu gauzak”

2011n Etiopian abiatu zen **Zaporeak** proiektua eta 2016a geroztik Grezian dauden errefuxiatuei jaten ematen die. Dagoeneko milioi bat otordu baino gehiago banatu dituzte Zaporeak proiektuan parte hartu duten hainbat boluntariok. Chiosen eta Atenasen egon ondoren gaurko egunez Lesbosen ari dira lanean.

2016an Chiosen izandako Olatz Azpiazuk eman zigun ***Zaporeak*** elkartearen berri. Oraingoan, berriz, Asier Juaristi izan da elkarte berberarekin Lesbosen egondakoa. Egoera samurra ez izan arren, baikor hitz egin digu.

Hiru urtetik honako egoerak…

Okerrera egin du, argi dago. Lesboseko Moria da Europako errefuxatu kanpalekurik handiena. Ideia bat egiteko, Greziako irla honetan aurtengo irailean 5000 bat lagun lehorreratu dira. Orain dela denbora ez asko batez bestekoa hiru saiakeratan zegoen finkatuta, hau da, hiru bat aldiz saiatzen ziren Turkiatik Lesbosen barrena Europara sartzen. Egun, aldiz, saiakera gehiago egin behar dituzte iristeko kontrolak estuagoak direlako, itsasoaz beste aldean Turkiak, Europaren aginduz, kontrolak gogortu baititu. Bestalde, mafiek duten indarra aipatu behar da, hauek baitira boterea dutenak eta egoera honekin etekina ateratzen dutenak.

Errefuxatuak irlara iristean jarraitu beharreko protokoloa honakoa da: Lesbosera iritsi bezain pronto Mitileneko portura eramaten dituzte eta mediku batek txekeoa egiten die baina… Mediku bakarra dago Chios, Lesbos eta Samos irletarako, pentsa…! Medikutik pasa eta bakoitzaren egoera aztertu ostean Lesbosen dauden hiru kanpamenduetako batera bideratzen dituzte, nahiz eta normalean gehiengoak Morian bukatu. Gogorarazi Moria kanpalekuak hiru mila lagunentzako azpiegitura daukala eta, egun, hamahiru mila pertsona daudela bertan. Egokitzapena minimoa da, txiki geratu baita hasieran pentsatuta zuten pertsona kopurua handitu delako. Hori dela eta, etxolez aparte, jendea kanpin-dendetan bizi da etxolen alboan dagoen olibondo deituriko zonaldean.

Zuen ekarpena….

Gure lana janaria prestatzea zen, helburua 1800 errazio prestatzea, nahiz eta banaketa arazoengatik errazio kopurua 700era gutxitu den. Ondoren Moria kanpalekuari itsatsita dagoen Gobernuz Kanpoko Erakunde batek (*Team Humanity*) banatzen zuen janaria gure laguntzarekin. Momentu hau aprobetxatzen genuen errefuxatuekin egoteko eta gure artean nolabaiteko enpatia sortzeko. Komentatu baita, sukaldean egunero genituela bi edo hiru errefuxiatu ere gurekin lanean eta hauen testigantza benetan gogorra zela; egoera oso gogorra bizi dute eta ez daude han nahi dutelako, ihes egin behar izan dutelako gerrateetatik, miseriatik…

Azpimarratu nahiko nuke Moria kanpalekuan denetariko jendea dagoela, hementxe bezalaxe: jende ona eta ez hain ona, lapurtzen zuen jendea (jendeak gosea pasatzen baitu…), bihotz oneko jende pila bat bere eguneroko jarrerekin adierazten zuena, bere herrian lanbide onak zituen jendea (gurekin sukaldean lanean zegoen mutikoa, Alijan, farmazialaria eta soziologoa zen Afganistanen), jubilatuak, haurrak, emakumeak…

Afganistango jendea da gehiengoa, Siriakoak gutxiago. Izan ere, asiloa eskatzerakoan zergatia arrazoitu behar da. Gehienak gerragatik ihesi datozela defendazen dute baina zer da gerra egoera eta zer ez? Europak zerrenda bat dauka gerra herrialdeena: Siria kontsideratzen dute gerran dagoela eta Afganistan, berriz, ez, beraz, iristen diren siriar gehienek lortzen dute asiloa. Afganistanen, berriz, ez omen dago gerrarik zerrenda horren aburuz, beraz Moria kanpalekuan daude urteetan zain, inork ez dakien zerbaiten zain.

Azpimarratu, baita, bakoitzaren errealitatea desberdina dela: ezagutu dut jendea ikusi duena ez daukala aurrera egiterik eta nahiago duela jatorriko herrira itzuli, galtzeko guztiak galduak dituelako. Afganistango errefuxiatu batek esan zidan behin: “*txarrena zer, hil egingo naizela? Hori al da txarrena?*” Halako egoeren aurrean hitzik gabe gelditzen zara. Gogoratzen naiz iritsi berri nintzela janari banaketara joan nintzela eta hamar bat urteko ume bati eman niola tuperra. Gaztetxoak tuperra iriki eta… Ea nahi nuen galdetu zidan, berak horixe besterik ez zeukan eta nirekin partekatu

OKINDEGIA
GREGORIO AZKUE
POTERO
DENDA.....943603643
OKINDEGIA.943604512

OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

nahi izan zuen. Jolasteko gogoa eta irrifarra beti ahoan duten umeak dira, azken batean… Umeak ume, bai Mutrikun baita Lesbosen ere ,nahiz eta egoera muturrekoa izan.

Euskal Herriko leku ezberdinetatik joandakoak izan zarete…

Taldea oso ona egokitu zait, Irungo neska bat, Burlatako beste bat, Iruñeako jubilatuak…. Gero, han, beste GKE mordo bat daude: asteazkenetan dantza ikastaroa egoten zen katalan batzuek antolatuta eta maixu errefuxiatu bat geneukala, futboleko beste bat ere bazegoen futbolaren bidez baloreak irakasteko…

Nola hartzen zaituztete …

Oso ondo, bikain. Esan bezala haurrak leku guztietan dira haur, beti jolasteko gogoarekin. Ez zaie axola baloi bat 10 lagunen artean konpartitu behar badute, kontua jolastea eta gu bezalako boluntarioekin ondo pasatu eta ikastea da. Elbarriek zein pertsona nagusiek ere gustoko dute gurekin hitz egin eta denbora beste modu batera pasatzea. *Team Humanity*ko boluntarioek ere, zer esanik ez. Errefuxiatuek sortutako GKE da Team Humanity eta beraien bizitza zein esperientziak biziki baliogarriak dira bai guretzat eta guztientzat.

Nere ustez, errefuxatuena ez da Greziaren arazoa soilik. Ziur aski hobeto kudeatu dezakete zenbait gauza, baina arazo hau guztiona da, Europa osatzen dugun herri guztiok hartu beharko genuke gure arduratzat, finean pertsonez ari gara eta. Inork ez ditu bere hiru umeak hartu eta hilabeteko bidaia egiten, egoera tamalgarrian, zoritxarretik ihes egiteko ez bada. Horregatik diot hemen esfortzua guztiok egin behar dugula, betiere arazoaren muina zein den ahaztu gabe: zergatik uzten dute guztia Europara etortzeko…?

Bestalde, koiuntura aprobetxatzen duen jendea ere badago. Ni ez naiz gerra dagoen leku batean egon, baina konturatu naiz errefuxiatuen kontu honekin zuzenean edo zeharka zenbaiten mozkinak etengabe hazi direla. Kasu batzuetan etika ez da zalantzan jarriko baina beste zenbaitetan… Debatea luzerako izan daiteke.

Ez dut ikusi turista asko. Gu joandako taldean gazteenak 26 urte eta zaharrenak 66 urte zituen. Adina edozein izanik ere, denentzako lana dago han. Ez dago jende zaharrik ez gazterik lanerako, denak gara beharrezkoak. Ikasteko leku aparta da, norbere burua ezagutzeko tokirik aproposena, horregatik, bakarrik joatea da onena. Holako lekuetatik pasa ondoren gauzak beste ikuspuntu batetik ikustera behartzen zaitu. Arazo potoloak soluzio potoloa behar du. Hausnarketa sakona egitea derrigorrezkoa da, informazioa badago, asko gainera, baina azalean ez geratzea da garrantzitsua.



ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

Camping
Galdona
JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria
eguneko menua daukagu
Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU



GOIZEKO IZARRA ANTZERKI TALDEAK 25+1

Aurtengo udaberrian bete ziren 25 urte "Goizeko Izarra Antzerki Taldeak", etenaldi luze baten ondoren, aurkeztu zuela bere lehen obra "Ederrena" zineman. Urte asko atzera taularatua zuten obra bera, eta lehena eta berria uztartu nahirik, orduan ibilitako aktore izandako batzuk Ikastolako ikasle izandako berriekin antolatu zuten emanaldia. Halako harrera egin zitzaion, pentsatua ez zegoen bigarren emanaldi bat ere jendaurrean jarri zela. Ekitaldia aurrera eramateko, aurreko udazkenean ekin zioten, horregatik "25+1".

Hurrengo urteetan gorputza hartzen joan zen taldea, eta herririk herri hegoaldeko lau probintzietan ibili ondoren, egun ere aktibo jarraitzen du era bateko edo besteko emanaldiak eman, eta beste taldeekin ere konprometituz.

Aurtengo Antzerkiaz Blai programaren baitan, Goizeko Izarra Antzdrki Taldeak azaroaren 24an eskainiko duen emanaldian bi zati izango dira, eta horietako bat 25 urte hauetan taularatutako emanaldien zatiek osatuko dute.



GABA BELTZA

Ohi bezala, Domusantu egun bezperan herriratu zen "Talaixako mamua". Mamua deitu arren, ez zituen asko ikaratu herriko umeak, kalean zehar gora eta behera jardun zuen bitartean. Ez zen izurik nabaritzen euren aurpegietan, agian, kalabaza jarrita zeukatelako euren etxeetan. Beheko Plazan, ostera, txunditutako begiak adi-adi eta ahoak zabalik geratu ziren suak hartu zituenean bere arropak, eta ez zuten aurpegiera aldatu, nahiz-eta mamuaren zurezko eskeletoa soilik egon sutan.

Nagusientzat "Gure Ametsa" taldeko dantzarien bira eta jauziak izan ziren arreta jartzera eraman zituztenak. Nagusienak beltzez jantzita parrokiako eskaileretan azaldu ziren, soinu ilun baten melodian murgilduta, beldurrezko egoerari indarra emanez. Ondoren Beheko Plazan ere dantzatu zuten.

Gaztetxoenak atorra beltza eta soineko zuri luzeaz jantzita, euren kriseilua eskuetan, "axuri beltza" doinuaren notak osatu zituzten euren gorputz mugimenduekin. Txalo handi bat!



EGUNEKO ZENTROAK URTEBETE

Azaroaren 12an urtea bete da Eguneko zentroa zabaldu zenetik. Urtea igarota, hasierako asmoak bete dira eta beteak ditu Aldundiarekin hitzartuta eskaintzen dituen 10 plazak. Mikel Deunak kudeatu eta udalak bultzatu eta babestu duen zentroa 15 plaza hartzeko dago prestatuta.

Sorreratik 13 mutrikuar pasatu dira bertatik, eta gaur egun 7 emakume eta 3 gizonezko elkartzen dira bertan. Goizean gosaltzeko eta dutxatzeko aukera ere badute instalakuntzetan, eta gero egunkaria letzeko, gimnasia egiteko, memoria lantzeko ariketak egiteko eta bakoitzak bere ahalmenak mantentzeko ekintzak egiteko aukera izaten dute beraien zerbitzura dauden bi langileekin. Zentroan bertan bazkalduta, arratsaldeko bostak arte jarraitzen dute atseden hartzen. Etxera itzultzeko, zentrora bertaratzeko bezala, Euskadiko Kutxaren laguntzari esker Egoitzak eskuratutako furgoneta egokituan egiten dute.

oreka zentroa
Masajea eta osteopatia
Hitt entrenamendua
K-Stretch luzaketak
Posturologia
Enterenamendu planak
Olhana: 605 735 911 Jon: 696 675 665
gorputzoreka@gmail.com
Jose Maria Alzibar 12, behea - Mutriku

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)



AKUARIOAK BIZITASUNA EKARRI DU

Kardala ikastetxeko ikasleek, joan den hilabetean, bi akuario muntatu zituzten herrian. Bata, Onkaia arrandegian (ur gaziko akuarioa), eta bestea Goizeko Izarra ikastolan (ur gezako akuarioa). Bigarren honetan, bertako ikasleek hartu duten sorpresa erabatekoa izan da. Eguneroko sarrera-irteeretan arraintxoek eskaintzen duten ikuskizuna nahitaezkoa bihurtu da. Hain zuzen ere, muntaiak eraman duen prozesu guztia ikusteko aukera izan dute ikasleek, eta horrez gain, arraintxo txikien jaiotzaz ere gozatu dute; hogei bat arraintxo jaio baitira azken aste honetan.

Kardalako ikasleek Akuariologia eta EIE (Enpresa eta Ekimen Sortzailea) ikasgaietako irakasleek proposatutako erronka oinarri harturik egin dituzte bi proeiktuak. Eta proiektuen babesle Onkaia izan dute.

Iaz ere akurioa instalatu zuten akuakulturako ikasleek Mikel Deuna zaharren egoitzan, eta ordukoan herriko zaharrek izan zuten aukera arrainek eskainitakoaz gozatzeko. Aurten, gazteagoek izango dute aukera horretaz baliatzeko.



MUTRIKUN EROSI ETA "ON EGIN"

Udalak eta herriko merkatari txikiek bat eginda abian jarri dute garapenerako marketing kanpaina berria hirugarren hankaren bila: bezeroak. Udalean egin zuten aurkezpena azaroaren 8a. Betiko helburua da herritarrek euren erosketak herrian egitea, baina pretentsio handiagoa ezarri nahi diote kanpainari: herritar erosleen kopurua handitu, eta, agian, kanpoko erosleak erakarri.

Horretarako bi txirrindu elektriko zozketatuko dituzte, egun oso modan daudenak, eta Mutrikuko herri aldapatsu honetan etekinak ateratzeko modukoak. Txirrinduak, Erdiko kaleko erakusleiho baten ezarriko dira, begietatik sar daitezen bezeroen burmuinetan. Eta maila berean garrantzizkoa dena, kanpainaren ondoren kanpainak berak zein ekarpen izan duen aztertuko dute eta horien zergatietan hausnartu, etengabeko hobekuntzan jarraitzeko eta beste bide erakargarrien bila jarraitzeko.

Kanpaina azaroaren 9an hasi eta urtarrilaren 6ra arte iraungo du. Zozketa urtarrilaren 10ean izango da. Berrogeita hamahiru denda txikik hartu dute parte antolaketan eta kanpainako araudiaren idazketan.

Kanpainaren zehaztapenak udalaren web orrian izango dira ikusgai (www.mutriku.eus).



MARIA STELLA MATUTINA MOJEN DISKOA

Aurtengo udan zeresan handia eman zuen Maria Stella Matutina kongregazioko monjek gure herrian egindako egonaldiak. Axular Arizmendiren grabazio estudioan diskoa grabatzera etorri ziren, baina kalean eta hondartza aldean ere ibili ziren. Mutrikun egin zuten egonaldiari bukaera emateko, herriari kontzertua eskaini nahi izan zioten eta, hala, Komenduko eleiza bete-bete egin zen kantu ederren emanaldia entzutera. Azaroan gure artean izango ditugu berriz, kaleratu duten diskoa herritarrei eskaintzera. Asmoa, mezatan kantu batzuk abestea ere badute. Diskoa azaroaren 24an jarri nahi dute Goiko plazan 15 euroren truke.

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268



AMODIOZKO GUTUNAK ETA ESALDIAK

Idazteko afizioa dutenentzat "Amodiozko Gutunen XXVIII. Lehiaketa" eta "Amodiozko Esaldien IV. Lehiaketa" antolatu dute Bergaran. Lanak jasotzeko azken eguna 2020ko urtarrilaren 6a jarri dute gutunen lehiaketarako, eta 2020ko urtarrilaren 17a esaldien lehiaketarako.

Lan guztiak jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan behar dira, eta nahi beste lan lan aurkeztu ahal izango dira.

Informazio gehiago: Tel.: 943 763 661 – 605 712 469 eta www.jardun.eus webgunean.

1.saria: 500 euro
2.saria: 250 euro
26 urtetik beherakoen onenari: 150 euro
Amodiozko esaldi onenarentzat saria: 100 euro

Antolatzailea: Jardun Euskara Elkartea – Errotalde jauregia z/g – 20570 Bergara



SAIA GOAIT eta GAROA DURANGOKO AZOKAN

Neguan sartzen hasi gara, eta honekin batera euskal kulturaren oparotasuna ageri da. Abenduaren 5etik 8ra izango da aurtengo Durangoko azoka. Bere 54. edizioan ere, ohi denez, hainbat kultur ikuskizun eta produktu izango dira bertan eskuragai. Aurtengoan, Mutrikuko bi musika talderen diskak izango ditugu esku-eskura MusikaZuzenean zigiluaren stand-ean, ***Garoa*** eta S***aia Goait*** taldeenak hain zuzen. Beñat Peralesek, Jon Antxustegik, Denis Alberdik eta Aitzol Urkizak osatutako laukote mutrikuarrak, gainera, Ahotsenean kontzertua emateko aukera ere izango dute abenduaren 7an, larunbatarekin.



txirritxa .com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

KALBAIXO JATETXEA
Tel. 943 60 32 56
MUTRIKU

AZAROA HOTZ, NEGUA MOTZ

"*Urriko eguna, argiko iluna*" esan genuen aurreko hilabetean, ordu aldaketaren eraginez egunak argitu orduko iluntzen hasten direlako urrian. Esaera zahar batek dioskunez, ordea, azaroa hotza izaten den urtean negua motza izaten omen da. Hotza ez dakit, baina euritsua izaten ari da behintzat; hortaz, beste esaera zahar hau ere kontuan hartu beharko dugu: "*Azaro euritsu, urte garitsu*".

Bitxikeria moduan: 11. hilabetea, eta beraz, urteko 11. ilargi betea; eta hori noiz eta, hilabete honetako 11. egunean.

Hilabete honi deitzeko erabilitako izenei dagokienez, aldiz, hona hemen beharbada ezagunak egingo zaizkizuen batzuk: azaroa/hazaroa (G,N), hazila, azarra, zemendia/semendia (B), gorotzila (Z), lehen abendu (N, NB), abendu txikerra (N,NB), gaztainazitu...

Azaroa/hazaroa

1. esanahia: "hazi+aroa" izango litzateke; hau da, haziaren aroa edo sasoia, hilabete honetan baserritarrek hazia ereiten baitute euren soroetan. Baratzea negurako prestatu, sasoiari dagokion uzta bildu (garai batean, batez ere, artoa), eta zereal edo zekale haziak ereiteko unea da.
2. esanahia: "aza+aroa", azak landatzeko aroa edo garaia ere izan daiteke.

Hazila

"Hazi+hila"; haziaren hilabetea. Azaroaren esanahi (lehenengoa) bera izango luke.

Zemendia/semendia

Latinezko sementis hitzetik omen dator. Sementis hitzak ongarri esan nahi du. Soroetan ongarria zabaltzeko garaia da.

Gorotzila

"gorotz+hila" baturatik dator izen hau, eta ongarriaren edo gorotzaren hilea izango litzateke. Aurretik esan bezala, garai honetan hasten omen dira baserrietan soroak prestatzen, gero hazia ereiteko; lehenik, ordea, ongarria zabaldu behar izaten omen da landetan. Zuberoan erabili izan da izen hau.

Lehen abendu / abendu txikerra

Azaroari horrela ere deitu izan zaio Erronkari edota Nafarroa Beherean. Abenduari erreferentzia egiten diote izen biek; hori bai, betiere, berau (azaroa) bigarren maila batean geldituta. Nahiz eta azaroko egunak abendukoak baino epelxeagoak izan, egun hotzak azarotik hasten direlako hartzen omen ditu izen hauek.

Gaztainazitu

Izen hau ere erabili izan da Euskal Herriko zenbait txokotan azaroari deitzeko; hain zuzen ere, gaztaina sasoia delako.

Mutrikun, berriz, gaur egun batez ere azarua entzuten den arren, zemendixa ere erabili izan da.

Orain dela egun batzuk, ondoko herri batean azeri bat agertu zen herri erdian noraezean; handik bi egunera, ibilgailuarekin lanera nindoala, bide erdian beste bat ikusi nuen, hilda. Artikulu hau osatzen nenbilen unea zen, eta bat-batean aurreko hilabeteetan aipatutako kataila/katuila (otsaila), zezeila (zezen hila, otsaila) eta astoila (maiatza) hilabete izenak etorri zitzaizkidan gogora. Eta segidan galdera hau: "azaroak azeriekin ez du zerikusirik izango, ezta?" Bila aritu arren, ez dut ezer berezirik aurkitu. Hortaz, aza eta hazien esanahiarekin geratu beharko gara.

Egunak, laburtzen; lotsagorritutako hostoak euren azken hatsa ematen, sorlekua uzten; gaztaina eta egur erre usaina bazterretan; azken hilabeteetan armairuan gordetako beroki eta eskularruak soinean, euritakoa bidelagun; baserrietako tximinietatik ihesi doan kea, beheko sua piztuta dagoela esaten duen salatari; kai-muturreko (dikeko) munstroa haize ufada bortitzen eta olatu oldarraldien kexu, orroka.

Hotzak hotz, sutondoan bero; presta gaitezen, urtearen hondarrean sartuko baikara gero.



Ibon Aginaga Imaz





Marisa Martinez Esparza

35 urte umeak antzerkian zaletzen



Iruñean jaiota, Donostian bizi zela ezagutu zuen gero senar izango zuen Jose Juan eta Mutrikura 1980 urtean iritsi zen. Etxez etxeko laguntzan dihardu lanean azken 27 urteetan eta mutrikuar askok hortik ezagutuko dute, baina beste askok bere zaletasunetik ezagutuko dute, antzerkitik.

35 urte beteko ditu abenduan ume eta gazte mutrikuarren artean antzerkirako zaletasuna lantzen. Zientoka ume, milaka batzuk akaso, bere ondotik pasatu dira honez gero, eta gazte haiei bizitzan asko lagunduko zieten instrukzioak ematen zizkien Marisak guztiei: ozen, argi, poliki eta mugimenduarekin. Bizitzak antzerkitik ere baduelako.

Eta umeen antzerkiaz arduratzeaz gain, astia ateratzen du beste hainbat kontutarako: umeentzako 60 antzezlan, bi liburu, 10 gidoiren eskema, helduentzako 80 orriko obra bat... Idazle ere bada.

Antzerkirako zaletasuna noiztik?

Ume-umetatik hasi nintzen eskoletako antzerki taldeetan, monjekin ikasten genuenean, zapatu goizetan entsegatzen... Ordutik hona, betidanik izan dut maite-maitea antzerkia. Interpretazioa baino gehiago, beharbada antzezpenen inguruan zegoen guztiak erakartzen ninduen, atrezzoak, jantziek...

Hasiera haietako oroitzapen bat...

Gaisorik nengoelako ez nintzen nire klasekideekin txango batera joan, eta monjekin Las aceitunas antzezlana egin ahal izan nuen, nik hamar bat urte izango nituela. Obra hark markatu egin ninduen eta orduantxe erabaki nuen antzerkirako nintzela.

Noiz hasi zinen Mutrikun umeekin antzerkigintzan?

1985 urtean alaba Samielan ikasten zegoela Guraso elkartean parte hartzea tokatu zitzaidan eta Eibarko eskola-antzerki jardunaldietarako gonbidapena jaso genuen. Bi aldiz pentsatu gabe, ume talde bat elkartu eta entsegutan hasi ginen. Eta azken 28 urteetan inoiz hutsik egin gabe izan gara Eibarko eskola-antzerki jardunaldietan. Hurrengo urteetan, Jose Antonio Arkauz kultura udal teknikari zenak Ederrena zineman antzeztera animatu gintuen eta, han ikusita, Ikastolako guraso batzuek beren seme-alabak ere gustura etorriko zirela, eta ordutik ikastetxe bietako umeak elkartzen hasi ziren, batekoak edo bestekoak izan, herriko umeak azken finean. Samielan egiten genituen entseguak eta, gerora, Institutuko gazteak ere hasi zirenean udalak utzitako lokalean hasi ginen.

Zer hizkuntzatan jokatzen dituzue antzelanak?

Hasiera haietan umeek antzezteko obra gutxi zegoen idatzita, eta zegoena gazteleraz. Lehenengo urtean erdarazkoarekin hasi ginen halabeharrez, baina laster konturatu nintzen gure taldeko umeek berezkoa duten euskaraz egin behar zutela antzerkia ere. Hartara, ni neu hasi nintzen obrak idazten eta euskaraz ipintzen umeentzat. Eibarren ere euskarazko obrak antzezten genituen beste talde ia guztiek gazteleraz egiten zutenean. Gerora, guztiak hasi ziren euskaraz.

Zer bilatzen duzu umeengan antzerkia lantzean?

Elkarri laguntzea, rolak, autoestimua, bokalizazioa edo ahoskatzea... Uste dut antzerkiaren zaletasuna garatzeaz gain, bizitzan garrantzi handikoak gertatuko zaizkien trebetasunak lantzeko ere balio duela gure jardunak. Lotsak astintzeko ere oso ona da antzerkia. Totel batek jendaurrean bere papera jokatzen ikustea baino gauza pozgarriagorik ez dago! Baina guztia, beraien nahietan eta borondatean oinarrituta, inor ezertara behartu gabe, guztia beraiekin adostuta.

Zer ematen dizute gazteek antzeztean?

Bizitza ematen didate. Nire bizimodua taldeen entseguen ordutegiarekin antolatzen dut, obrek eskatzen duten guztiarekin: antzezlanaren idazketa, erropak, bidaiak... Oso ondo pasatzen dugu elkarrekin! Eta umeek denborarekin egiten duten garapena ikustea ez dakizue zelako betegarria den.

Gidoia, atrezzoa, jantziak, zuzendaritza... dena zuk?

Egia esan, asko gustatzen zait bakarlana. Hainbat gurasok eskaini izan didate laguntza, baina bakarrik hobeto ibiltzen naiz. Gainera, uste dut umeei ez zaiela komeni gurasoak hain





hurbil egotea... Behin eduki nuen andra bat ondoan, baina haren alabak oso gaizki pasatu zuen haren errietak entzuten... Edonola ere, Uranga-Martineztarren laguntza ezinbestekoa zait. Zortea dut alabak eta senarra hor ondoan edukitzean, laguntza handia ematen baitidate.

Eta gauzak hobeto egin nitzakeela sentituta, 10 urtetan udako oporretan Bartzelonako "Escola Municipal d'Expressió I de Psicomotricitat" eskolara joan nintzen formakuntza jasotzera.

Taulatu gainean bai, baina kalean ere ibiltzen zarete...

Kaleko antzerkia ere egin izan dugu zenbait urtetan, eta egun seinalatuetan ere hor egoten gara. Olentzero kaleetan zehar bakarrik ibiltzen zela eta, Arkauzek hari laguntzeko prest ote geunden galdetu zigun eta han hasi ginen Olentzerorekin eta gero Mari Domingirekin ibilbidea egiten. Eta gerora Gaba Beltzean ere hasi ginen parte hartzen, baita San Juanetan ere... Azken batean, herriari eskaintzen zaizkion ekitaldietarako beti gaude laguntzeko prest.

Hasieratik hona asko aldatu al da umeen zaletasuna?

Umeek denbora behar dute. Gauza gehiegi daukate eskolatik irten eta gero. Partikularrak... ingelesa... musika... kirola... eta dantzak eta antzerkia horien guztien atzetik datoz. Gu astean ateratzen ditugun tarteetan eta asteburuan moldatzen gara. Lehen, beharbada, gauza gutxiago zeukaten umeek eta antzerkira zetozenak lasaiago zetozen... Eta aldatu den beste gauza bat, eszenatoki gaineko unea: lehen gogorragoa egiten zitzaien, baina gaur egun ohituago daude jendaurrean agertzen, gaur egun lotsa gutxiago dute umeek.

Zenbat ume eta gazte igaro dira zure ondotik?

Urtero aldatzen da kopurua... Aurten, adibidez, 65 gazterekin nabil lanean, baina ehundik gora umerekin askotan ibili izan naiz. Izen emateko deirik egin gabe, antzerkian ibili nahi duten guztientzat daude zabalik ateak. Hain gustura ibiltzen dira umeak inguruko herrietatik ere etortzen direla. Ez litzaidake gustatuko antzerkia egin nahi duen ume bat aukerarik gabe geratzea. Ume eta gazte guztiek izan dute, dute eta izango dute paper bat gure antzezpenetan. Horrenbeste urte pasa ondoren, bereziki pozgarria gertatzen zait hasieratan izandako ume haien umeak izatea gaur egun nire taldeko antzezleak.

Pozak eta tristurak asko izango ziren...

Tristura gaisotasunak jotako umeek antzerkirik egin ezin izateak sortu dit. Nahi eta ezina. Eta poza, urtero pozak hartzen badira ere, 2009 urtean Buero Vallejo lehiaketan Euskadiko talde onena suertatu ginenekoa. Gazteek egindako lanari emandako saria izan zen hura, nahiz eta antzezlearentzat sari onena eszenatoki gainean bere publikoaren aurrean antzeztu ahal izatea den.

Aurrera begira, ze asmotan zara?

Antzerkia egin nahi duten bi gazte hurbiltzen zaizkidan bitartean, hortxe egongo naiz edozertan laguntzeko beraiei. Horretxek betetzen nau, eta nire lan horrek baten bati mesede egiten badio, zer hobe?

Ume eta gazteentzako mezurik?

Antzerkia gustuko dutenei esan nahi diet antzerkia egiteko. Bi lagun nahikoa dira antzezlan bat jokatzeko. Animatu zaitezte, elkartu zaitezte eta eman pausua. Eta ni, laguntzeko prest.



Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak...)
asteazken iluntzetik igande gauera arte
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

ZINIA MUTRIKUN (II)

Zubixako zinia, gero trinketekua (Maitena) eta, azkenik, "Ederrena". Hirugarren zine hortan ikusitxako pelikulak, oraindik ere, gehixenon goguan egongo dira... Eta, ba al zakizun Mutrikun pelikula bat baiño gehixo grabatu zala? Hemen aitxatzen ditxugunetatik, ia zeintzuk dakazuzen ikusitxa.

Maitena ziniak behia jo zoanian zine gabe geratu ziran mutrikuarrak. Hiru-lau urtian egon ziran herrixan pelikularik ikusi gabe. Kontuan hartzen badegu etxian iñork ez zaukala telebistarik, pentsatzekua da zeiñen luziak egingo zakuezen zine gabeko urte harek gure aitxona-amonei. Izan ere, asteburuetan zinera juateko ohitxuria sakratua zan ixa-ixa. Eta mutrikuar askok Ondarrurako juan-etorrixa egitxen zeuen, oiñez, pelikulak ikustiarren.

1949.urteko zemendixan, "San Isidro" baserritxarren kooperatibaren izenian, Jose Luis Zubizarretak eleiz atzeko terreno batzuk trukatu ziozen Justo Urkiriri, bertan zine berrixa egitxeko. Eraikitzeko gitxieneko metro kopurua lortutakuan Udalak baimena eman zion Urkiriri zinia altzatzeko: "*se pretende emplazar un Cine-Teatro, tan necesario y beneficioso para el vecindario en general e incluso de la propia economía*". Bihar-biharrezkua, mesedegarrixa... Jakiña, danak zozen desiratzen-eta!!

Paraje haren aldamenian Claudio Astigarragaren lokala eta sagardandeixa –*Sidras Astigarraga*– zozen, 1946.urtian eraikitxakuak. Lokalaren bentanak itxi eta, pega-pega eginda, zinia egitxen hasi ziran. Lorentzo Barinaga "Bizkai" zan kontratistia, eta hortan zabiltzela... eleiz atzeko bolatokiko harri latzak ikusitxa baten bati iruditxu zakon harri harek dotoriak zirala zineko arkua egitxeko. Pedro Basurko "Kurutzeta" hargiñak egin zoan harri latzezko arkua. Itxura danez, Itxura danez, horrek eta beste aldaketa batzuek asko garestitxu zeuen obria, 150.000 pezeta inguru.

Ziniaren gaiñian bi pisu egin ziran. Ondarruko Luxio Urkiri laterua bizi zan lehelengo pisuan, eta haren gaiñian, berriz, Jose Arruti alkatia. Kontu xelebria benetan: esan bezela, Luxio ziniaren gain-gaiñian bizi zan eta ohe azpixan koska bat zakan, altillo bat, zineko proiektoria libratziarren apropos egindakua.

Inauguratu baiño egun batzuk lehenago, Udal agintarixek zine berrixak ordaindu biharreko zergak adostu zitxuen, "*el impuesto del consumo de lujo de la tarifa 5ª el cual grava las representaciones cinematográficas*". Hillian 1.000 pezeta; dirutxua orduan.

1951ko maiatzaren 6xan inauguratu zan Ederrena zinia. Herrixan pelikularik ikusi gabe denbora askuan egon eta gero...



Egun haundixa izango zan haura Mutrikun. Inaugurazioko domeka hartan "*Hablan las campanas*" pelikulia eman zeuen, eta hurrengo domekan "*Serenata argentina*".

1954. urtera arte Justo Urkirirena izan zan zinia. Urte hortan eleizari saldu zixuen, urkiritarrekin harreman ona zakan Don Jose Antonio Ezeiza abariak bideratuta. Albisturkua zan arren "Txillin" esaten zixuen, Txillinenian zaualako apopillo. Herrixaren aldeko ekimen edo iniziatiba asko jarri zitxuan martxan Ezeizak, konparaziotarako futbol-zelaixa eta Jauja. Kalia ere badaka Mutrikun.

Ehunka pelikula eman eta gero, 2002ko maiatzian bota zeuen Ederrena zinia.

FUNTZIUAK ETA KALIFIKAZIUAK

Hiru egunetan egoten ziran funtziuak Ederrena zinian, eguenetan, zapatuetan eta domeketan. Arratsaldeko 6retan eta gabeko 10etan izaten ziran emanaldixak; domeketan hirugarren funtzio bat ere egoten zan, arratsaldeko 2,30etan (umientzat). Umientzako funtziuak bi pezeta balixo zoan eta gañerakuak bost.

Ederrena ziniaren historixan lagun bat baiño gehixo ibilli zan pelikulak proiektatzen: Jose Ignacio Urkiri, Kepa Astigarraga (gero alkatia izango zana), Karmelo Basurko, Jesus Mari Lekube, Josetxo Flores "Kaskas"...

Ziniak, sarrera edo atari moduko bat zakan –"anbigú" esaten zakon–, zineko atia baiño kanporago. Bertan, edarixak eta bestelakuak hartu zeikezen: ardau pixka bat, koñak koparen bat edo litxarrekerixaren bat...

Sasoi baten pelikulak bost kalifikaziotan zozen banatuta:

1.-Umientzat (tolerada para niños),

2.-Gaztientzat (tolerada para jóvenes),

3.-Helduentzat (tolerada para adultos),

3R.-"Pikantia", matxuak-eta... (tolerada para mayores con reparo), eta

4.-"Inmorala" (gravemente peligrosa).

Ederrena zinian gehixenez ere "3R" kalifikazioko pelikulak ikusi zeikezen, laukorik ez.

ZINIA, GAUZA KALTEGARRIXA?

Ederrena zinia baiño lehenago, lehelengo zinia jarri zeuenetik edade guztietakuak egoten ziran pantaillari begira, zuntzungordan. Ume-umiak ere bai tartian. Hori ikusitxa, 14 urtetik beherakuentzat pelikula egokixak jartzeko eskaeria egin zixuen Zubiaga plazako "Cine Motrico"ko arduradunei: "*Adquirir, para la primera sesión de la tarde, películas instructivas, adaptadas a la edad y eliminándoles de ese modo, de las dos últimas funciones, que se reservarían para gente adulta*" (1927-01-07).

Baiña, mutrikuar batzuek oso begi txarrez ikusten zeuen zinia, ziharo kaltegarrixa zalakuan edonorentzat. Mutrikuko Eleizkoi alkartekuak eta zineko arduradunak egutegixa eskuan, agendak bateratu zitxuen atzerkixa eta zinia batera ez jartzeko, txandaka jarduteko. Horren aurrian, "Juantxo" izeneko batek hau idatzi zoan Argia astekarixan (1927-10-23): "*Bada, zineak eta eleizkoiak bat egin omen dute eta zine ori izanik ludian –munduan–danikgauzariktxarrenetakobat¿nolatabateginliteke*



eleizkoi elkarteko gaztediarekin? ¿nun dirade orko agintariak?".

1939.urtian Mutrikuko alkatia kejatu egin zan pelikula desegokixak ematen zitxuelako zinian, "*se lamenta de ciertas noticias que tiene de que en el cine Frontón de esta Villa se exhiben peliculas bastante inmorales*". Horren aurrian proposatu zoan bikaixuarengana jotzia, "*al igual que se ha hecho en otras partes, se forme una Junta de Asociación de Padres de familia para la debida censura de las películas*". Eleizkizunak zozen bitxartian, batzuetan pelikulak ematen zitxuela-eta, eleizkizunen eta pelikulen ordutegixak batera ez etortzeko eskaeria ere egin zoan: "*siendo constumbre tradicional el que los niños asistan a las visperas con sus maestros y en evitación de que sea restada la concurrencia a dichas funciones religiosas se acuerda, (...) se vea la manera de fijar un horario adecuado para las sesiones de cine*".

Ederrena zinian umientzako pelikuletan ez zan matxorik ikusten, ezta pentsatu ere. Baiña, baten behintzat, estuasun ederra pasatu zoan proiektatzen zauanak, izan ere zapatuan helduek ikusitxako pelikulia jarri zixuen umiei arratsaldeko 2,30etako funtziuan. Pelikulan, neskia eta mutila ganbara baten sartu ziran eta... Don Jose Antoniok esan zion proiektatzailliari "*hori tapatu eta listo*", baiña jentia konturatu zanian, ederra zaparraria! Danak kejaka.

BERTAN GRABATUTAKO PELIKULAK

Mutrikun grabatu diran pelikula batzuen berri izan degu:

"*Las inquietudes de Shanti Andia*" (Arturo Ruiz Castillo, 1947). Pio Baroja idazle donostiarrak 1911. urtian argitaratutako nobelan oiñarritxutako pelikula hau Saturraranen grabatu zan, baitxa Deban eta Lekeitxion ere. Batzuek Barojaren Lúzaro herri imajinarixua Saturraranzar baserri inguruan kokatzen deue, beste batzuek ostera, Debaren alde egitxen deue.

"*Y eligió el infierno*" (Cesar Fernandes Ardavin, 1957). Edade batetik gorako mutrikuar askok goguan eukiko deue pelikula hau, izan ere, aurrekuan ez bezela, hemen mutrikuar asko ibilli zan figurante lanetan: Jesus Mari Lekube, Candido Agirre "Rene-petit", Felipa Jimenez "Kastellania", Lidia Agirrebengoa "Erronda", Mª Nieves Ansorregi "Txaparro", Horaxio Landa... Bustonian zihardun andra batzuei pelikularen produktoriak eskabetxako jornalaren parekua eman ei zixuen estra lanak egitxiarren.

Drama hau Gerra Hotzian kokatuta do, Alemanian, gizon talde bat modu klandestinuan gogor lan egitxen deue komunismotik ihesika dozenak libre lagatziarren, eta hortarako muga pasatzen laguntzen dixue. Pelikulia egitxeko Mutrikuko toki batzuei (Goiko plazari, esaterako) Alemania iparraldeko herrixen itxuria ematen ahalegindu ziran. Sekuentzia batzuk beste herri batzuetan grabatu zitxuen, Ondarruan, Lekeitxion, Durangon, Zarautzen...

"*La conquista de Albania*" (Alfonso Ungría, 1983). Drama historiko hontan beste batzuen artian Xabier Elorriaga aktoriak parte hartu zoan. Bere sasoian oso garrantzitsua izan zan pelikula hau: Euskal Herriko zinemagintzan lehelengo aldiz gainditu zan 100 millioiko aurrekontua.

Mutrikuko *Hirugarren plaian* grabatu zan espediziua ertetzen eta Naparruan (Erregeren Bardea) kokatu zeuen Albania. Jesus Mari Arrizabalaga "Masillas"ek Burumendi atzeko plaia hortara eruan zoan erremolikian desguazerako zauan barku bat, karabela itxura emanda.

"*Kareletik*" (Anjel Lertxundi, 1987). Euskeraz egindako pelikulia da. *Maria Auxiliadora* barkuko tripulaziuak arrantzan eta kontrabanduan jarduten deu. Tripulaziuaren arteko harremanak korapillatu egitxen dira diruagaitxik eta maitasun kontuengaitxik. Gaiñera, itsasuan dozela, guardixa egitxen zauan maiñela kareletik botatzen deue. Erritmo moteleko drama hau neguan grabatu zeuen Mutrikun, Orixon eta Getarixan.

"*Cuestion de suerte*" (Rafael Moleón, 1997). 1996ko iraillian grabatu zan Mutrikun (Alkolean), Hondarrabixan eta Donostian. Kostaldeko herri lasai baten, Julio eta Concha gaztiak ezkontzeko doz; baiña, halako baten bitxiz betetako maletia, hildako bat eta andra eder bat sartzen dira euren planen erdixan. Hortik aurrera, dana da zorte kontua. Horaxio Landak partu hartu zoan bertan.

"*Izarren Argia*" (Mikel Rueda, 2010). Drama hau euskeraz grabatu zeuen. 1938.urtian girotutako pelikula honek Saturrarango kartzelan bizi izandakuak azaltzen diguz. Batez ere Naparruako Artikutzan grabatu zan pelikulia, baiña baitxa Azpeitxixan eta Hondarrabixan ere.

"*Eskamak kentzen*" (Olatz Beobide, 2016). Telesail hau eskabetxe fabrika baten girotuta do. Jabiak lantegixa itxi eta langilliek erostia erabakitzen deue. Mutrikuko portuan grabatu zan komedixa dramatiko hau.

Josu Larrañaga Arrieta

Abendurock.....15 urte.....

Urteurren borobila aurtengoa! Eta eskaintza ere horrelakoxea izango da.

Aurreko urteetan Mutrikutik igarotako taldeak, eta proposamen berriak ere izango ditugu abendu honetan. Tartean baita kontzertu bereziak ere; hain zuzen ere, Eraso taldearen kontzertua izango da horietako bat, bere 20. urteurreneko bira bereziko geldialdietako bat Mutrikun egitea erabaki baitu. Proposamena egin eta berehala eman zuten baiezkoa.

...MRK ate irikixak

15. Abendurocki ekimen honekin zabalduko dizkiogu ateak (abenduaren 1ean, 16:30ean). Aurtengoa 3.a izango da; azken urteetako arrakasta ikusita, nola ez antolatu berriz? Inoiz esku artean instrumentu bat izan ez duenarentzat aukera paregabea. Rock talde batek izan ditzakeen oinarrizko instrumentuak (bateria, baxua eta gitarra) jarriko ditugu gaztetxeko agertokian nahi duenak jotzeko/probatzeko. Batez ere, lehen hurbilpen bat egiteko izango da.

...BOHEMIAN RHAPSODY

Ez da denbora askorik igaro Queen taldeari buruzko film honek argia ikusi zuenetik. Rockaren historiak eman duen talde handienetako baten bizipenak (fikziora ekarrita) pantaila handian ikusteko aukera izango du nahi duenak. Honakoa, aurreko urteetako emanaldiak bezalaxe, Zine Forumeko lagunekin batera antolatu dugu, eta abenduaren 8an, 18:00etan, Zabielen izango da.

...KAMISETAK

Abendurocken 15. urteurrena dela aprobetxatuz, diseinu berridun kamisetak aterako ditugu. Nahi izanez gero (eta kontzertuetan ikusten ez badituzue), hurbildu MRK-ko kideren batengana eta galdetu lasai.

Bukatzeko, azken 15 urteetan hau guztia aurrera eramateko laguntza eskaini diguten Mutrikuko Udalari, gurekin elkarlanean aritu diren elkarteei eta inguruko lagunei, eskerrik asko!!! Eta nola ez, antolatutako ekimenetara hurbildu zareten guztioi! Zuek gabe ez dago jairik.

Urtero bezala doan izango da eta jaia ziurtatuta egongo da; beraz, badakizue, animatu! Bertan ikusiko garelakoan, gora MutrikuaRocK!

MRK (Mutrikuko Rock Kolektiboa)

...KONTZERTUAK.....

>> ERASO! <<

Euren lehen diskoaren 20. urteurrena dela eta, bira berezia egiten ari dira. Gogotsu eta beti bezalako soinu indartsuarekin itzuliko dira Mutrikura, “Erantzunik gabe” laneko abesti gogoangarriekin belarriak kolpatzera (abenduaren 6an).

>> ROY VELOCES + LA ÚLTIMA BALA <<

Zaldibartik datozen bi talde hauek rock&rolla dute ardatz. Tartean, urte askoan MRK-ko kide eta Abendurock aurrera ateratzeko ezinbestekoa izan den lagun bat baxua astintzen. Abenduaren 13an, zaldibartarren rock&roll gaua izango dugu.

>> KOKEIN <<

Abenduaren 20an, Zaloaren ahots indartsu-goxo-urratuak gidatutako boskote eibartarra oholtzaratuko zaigu. 10. Abendurocken ere jo zuten (Zabielen), baina orduan kontzertu akustikoa eskaini ziguten hiruko formatuan. Oraingoan, ordea, talde osoa dator doinu elektrikoz gaztetxea astintzera; harrezkero egindako abesti berriak ere eskaintzeko asmotan.

>> MRK GAUA <<

Jada azalpenik behar ez duen gau magikoa; urtero gaztetxea leherraraztea lortzen duen jaia (abenduaren 21ean). Oraingo honetan, herritarren parte-hartzea gehiago zabaltzeko asmoz, osagarri berri bat gehitu diogu gau honi; nahi duenak aukera izango du gau honetan entzun nahiko lukeen abestiren bat edo beste proposatzeko. Horretarako, orri batzuk jarriko ditugu tabernetan (zerrenda egiten joateko), eta bestela, **mrktarock@gmail.com** helbidera bidali proposamena. Gero, zerrenda aztertuko dugu eta ea baten batzuk joten ditugun. Azaro bukaerara arteko epea dago proposamenak egiteko.

>> KOBAN <<

Agertokia txiki utziko duen talde donostiarra. Euskal kultura, musika elektronikoa eta swinga uztartzen ditu talde honek. Trikitixa, pianoa, gitarra, sintetizadorea, perkusioa... baina batez ere, 5 emakumeren ahots ahaltsu bezain liluragarria da talde honen gakoetako bat. Musika eskaintza bitxia bezain berezia, baina ikustea benetan merezi duena. Doinu dantzagarriokin festa girorik ezta faltako (abenduaren 27an).

>> SOLASALDIA <<

Abenduaren 15ean, 17:30ean, solasaldi berezia izango dugu. Hauxe da aurtengo berritasuna. Ea gustuko duzuen. Zerbait ezberdina egin nahi genuen, eta zer hobe Ines Osinaga (Gose, Ekon...) eta Jurgi Ekiza (Willis Drummond, Ekiza, EraBatera...) gaztetxeko taula gainera gonbidatzea baino. Egungo euskal musikaren bi erreferente edo eredu, musikari buruz: bata, Arrasatetik; eta bertzea, Baionatik. Koldo Otamendi (Musikazuzenean) arduratuko da elkarrizketa bideratzeaz. Momentuz, hortxe utziko ditugu honi buruzko azalpenak. Gero, abestiren bat edo beste eskainiko diguten... hori jakin nahi duenak, bertara hurbiltzea besterik ez du.

MRKren ESKUTIK

ABENDUROCK MUTRIKU



ABENDUAK 6 | 22:30
ERASO!

ABENDUAK 13 | 22:30
ROY VELOCES + LA ÚLTIMA BALA

ABENDUAK 20 | 22:30
KOKEIN

ABENDUAK 21 | 22:30
MRK GAUA

ABENDUAK 27 | 22:30
KOBAN

ABENDUAK 1 | 16:30 **MRK ATE IRIKIXAK** • ABENDUAK 8 | 18:00 / ZABIEL **BOHEMIAN RHAPSODY** FILMA
ABENDUAK 15 | 17:30 **INES OSINAGA (GOSE) & JURGI EKIZA (WILLIS DRUMOND)** SOLASALDIA

DOHAINIK ZUZENEAN MUTRIKUKO GAZTETXIAN

MRK · MUTRIKUKO UDALA · Gaztetxa · HITZA · musika

Kaixo txantxangorrixak!

Aurten ere, urtero lez, urriak 31 gabaz Talaixatik bajau eta herrixan zihar ibili nai. Gaztetxetik erten nitzan laguntzaile bikaiñekin batea: dantzarixak, antortxeruak, musikarixak... Axuri beltzan doiñuakin argitxu eta dantzan jarri gendun herrixa!

Gaiñea, aurten, ez nai mamu bakarra izan; albuan izan ditxut beste bi mamu koloretsu Gaba Beltza alaitzeko. Nahi dezue sekretutxo bat kontatzia? Txantxangorri batek esan ditxenez, bi mamu honek etxeko txikixenen magiaz beteta doz, eurak izan dia-ta mamuak elkarlanian sortu ditxuen artistatxuak, beren sormenakin eta eskuekin. Beheko plazan ni su gar artian erre ostian, nere bi laguntzailetxuak gelditxu zian gaba hartan herrixa zaintzen. Eta bai ondo zaindu ere!

Bestalde, herritxar eta dendari batzuk kontau diatenez, arratsaldian, ni kalejiran erten aurretik, herriko denda eta kaliak naranja kolorez margotu zian! Izan ere, Gaba Beltzeko elementuekin jolasian aritxu ondoren, gure artista txikixek kalabazak Erdiko kaleko toki batzuetan jarri zitxuzten! Hau dana gitxi balitz, gure txantxangorrixak beren kandelak apaindu eta kalabazak sortu zitxuzten!

Herriko txantxangorrixei esker, Gaba Beltza ez zan hain beltza izan Mutrikun. Eskerrik asko danoi!

Hurrengo urterarte!

Talaixako mamua





Txantxangorriko haurrek sortutako Talaixako Mamuak. Talaixako Mamu handixakin batea kalejiran erten zian.

ZER EGIN DEU?

Urriak 31 arratsaldian, Lehen Hezkuntza 2, 3 eta 4. maillakuok Gaztelekuan batu giñan. Bertan, Gaba Beltzeko kandelak apaindu, eskulan bitxartez kalabazak eiñ, eta Talaixako Mamu bat sortu gendun!

Beanduo, Ludotekan Haur Hezkuntzako haurrekin kalabazak apaindu genduzen eta herriko denda batzuk apaintzea jun giñan. Zelako artistak zeaten!

Azaroak 1ian, berriz, LH 5 eta 6. maillakuak, Gaztelekuko gaztiekin batea, Gaztelekuan taldeka sartu zian eta misterixo bat argitxu bihar izan zeuen!

www.kalaputxi.eus

Azaroak 25

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Iritsi da azaroaren 25a, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Urteko egun guztietan sistematikoki emakumeok (*, bollera, trans...) bizi ditugun hainbat indarkeria eta zapalkuntza oihuka salatzeko unea. Indarkeria matxista eguneroko ogia bihurtu da albistegietan, izan ere, 2003. urtetik gaur arte 101 emakume eta 11 ume hil ditu indarkeria matxistak Euskal Herrian.

Bazkaldu bitartean, lanera bidean eta oheratu aurretik ia egunero irakurri edo entzuten dugu komunikabideetan halako herrian emakume bat hil duela bere senarrak, bikoteak, bikotekide ohiak, edo ezezagun batek. Txistua irentsi eta jarraitzen dugu bazkaltzen, gidatzen edo ohera bidean. Bake garaiez hitz egiten digute etengabe, baina hau ez da gure bakea.

Dena den, garrantzitsua iruditzen zaigu aipatzea indarkeria matxista ez direla soilik, bortxaketak eta hilketak. Mugimendu feministak azken urteetan argi utzi du indarkeria matxista egituratua eta estrukturala dela, eta sistemak berak modu ugari dituela bortxa eta indarkeria emakumeon bizitzen kontra erabiltzeko. Horren adibide dira gauez etxera bidean sentitzen dugun beldurra, harremanetan sortzen diren botere harremanak, taberna-zuloetako ukituak eta festa giroko eraso sexistak, besteak beste. Izebergaren punta ur azaletik gailentzeko, ur azpian bloke patriarkal, kapitalista, arrazista eta heteronormatibo handi bat dagoela ikusaraztea beharrezkoa da.

Gure gorputzak zapaldu dituzte urte luzez, estereotipoak inposatuz, heterosexualitatea aukera bakar gisa islatuz, normatik ateratzen den oro ertzera bidaliz. Baina orain ertzak erdira ekartzeko prest gaude, bollerak, transak, eta normatik ateratzen diren aukera, gorputz eta espresio guztiak aitortu eta ikusarazi behar ditugu, geure praktikak zalantzan jarriz.

Bestalde, aipatu nahiko genuke Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, emakume guztiok sufritzen ditugun indarkerien molde eta espresioak ez direla berberak. Emakumeok anitzak gara, langileak, arrazializatuak, zaintzaileak, garbitzaileak, amak, bollerak, transak... zapalkuntza ugarik eharkatu dezakete gorputz bakar bat. Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan argi geratua da emakumeok zapalduak garen arren, inoiz zapaltzaile ere izan gaitezkeela eta ezinbestekoa da besteen pribilegioak seinalatzearekin batera geureak ere etengabe berrikustea. Izan ere, herrian bertan badugu nora begiratua, hor daude, esaterako, erresidentzietako langileak borrokan edo emakume arrazializatuak interna bezala gure zaharrak zaintzen. Albora begiratzeari utzi eta gizarte bezala geure ardurak hartzen hasi behar dugu.

Azkenik aipatu nahiko genuke azken hilabeteetan herrian izandako erasoen aurrean autodefentsa feministaz erantzungo dugula, antolatzen, hortzak erakusten, saretzen, zubiak eraikitzen eta, batez ere, elkar zaintzen, osatzen eta babesten.

Gora borroka feminista!



AZAROKO EGITARAUA

Azaroak 17, igandea, 19:00
'**La modista**', film emanaldia.

Azaroak 25, astelehena, 19:00
manifestazioa EMA gunetik (Zubiaran onduan)
+ ekitaldia (Goiko plazan).

Azaroak 30, egun osoan
Autodefentsa feminista ikastaroa
(18 urtetik gorakoentzat).

Abenduak 14, larunbata, 11:30
Hiltzaldia,'**Indarkeria matxista aztertzen**',
Ainara Etxearte psikologoaren eskutik

ZORIONAGURRAKZORIONAGUR



LIZAR
Zorionak Lizar!
Azaroan 4an 6 urte haundi beteta, muxu haundi bat etxekuen partez!



IZADI
Zorionak Izadi etxeko danon partez!!
Muxu pilo bat zuretzako!!



MAITE
Zorionak Maite!!
Ondo-ondo pasaaa!!
Kortazahar family



JOSEBE eta TXOMIN
BERROGEI urte elkarrekin...!
Eta beste hainbeste opa dizue familia osoak.
ZORIONAK BIKOTE!



LUKEN eta JAKES
A ze parea!!!
Zorionak mutilak!!
Paaaaaa



KOLDO
Zorionak!!
Muxu erraldoiak txapeldun! ta Lukenen muxua sudurrian!



LUKEN
Zorionak Luken!
3 urte daguaneko!!
Ume alai eta saltserua!
Amatxo&Aitatxo



INES eta KANDIDO
Hau poza...
65 urte elkarrekin...
eta holaxe urte askoan!
ZORIONAK familia osoaren partez
eta bereziki Nekanek.



Gorritxu autoak
Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

ZORIONTZEKO BIDEAK
· kalaputxi2001@gmail.com · whatsapp 635748393 ·
· Ansorregi oinetakoak ·

Argazki Zaharrak






1946 urtea
Franco Mutrikun

Argazki zaharrak erakutsi nahi?
>> kalaputxi2001@gmail.com
>> wathsapp: 635748393
>> Ansorregi zapata denda



BEHEKO PLAZAN (1962, Hilario Iturrinoren despedidia)
Ezkerretik hasitxa: Jenaro Zelaia (tente), Juan Mª Garagarza, Juan Antonio Txurruka, Iñaki Burgaña, Joxe Miel Txurruka, Karlos Basterretxea, Inazio Goioaga, Hilario Iturrino.
Erdixan: Agustin eta Miel Arrieta.
Kukulumutxu: Bitoriano Galparsoro, Jesus Mª Elezgarai, Jose Antonio Andonegi, Jose Antonio Urreizti eta Jesus Mª Zabala.

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku


ANSORREGI
oinetakoak
erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

AZAROA		ABENDUA	
18tik 21era	Amaia Zalduegi	1	Lon Apraiz
22tik 24ra	Hiart Burgoa	2tik 5era	Hiart Burgoa
zapatu (23) goizean, Lon Apraiz		6tik 8ra	Amaia Zalduegi
25etik 28ra	Lasuen-Elezgarai	zapatu (7) goizean, Lasuen-Elezgarai	
29 eta 30	Lon Apraiz	9tik 12ra	Lon Apraiz
Gauetan, egunero (22:00-00:00):		13tik 15era	Lasuen-Elezgarai
Elgoibar		16tik 19ra	Amaia Zalduegi
Gauetan, egunero (22:00-09:00):		20tik 22ra	Hiart Burgoa
Mercedes **ZUMETA** 943 82 04 98		zapatu (21) goizean, Lon Apraiz	
San Agustin kalea 5, Eibar		23etik 26ra	Lasuen-Elezgarai

MENDI IRTEERAK

abenduak 1

ARNO inguruak

Burumendi Mendi Elkartea

ODOLA EMATEA

abenduak 13

Anbulatorioan, 18:00etan

Gipuzkoako Odol Emaileak

egitarauak eta deialdiak: **kalaputxi2001@gmail.com** edota **whatsappa 635748393**

ANTZERKIAZ BLAI

azaroak 8, barixakua

19:00 Txarriboda antzezlana HIKA teatroa

azaroak 17, domeka

18:00 Eta harro nago haur antzezlana ZIRTAKA antzeki taldea

azaroak 24

19:00 Goizeko Izarra antzeki taldea

abenduak 1, domeka

19:00 RITA antzezlana

TXALO produkzioak

abenduak 14, zapatua

19:00 Akelarre antzerki taldea

abenduak 15, domeka

19:00 Akelarre antzerki taldea

EMANALDI GUZTIAK ZABIEL KULTUR ETXEAN

ABENDUROCK

abenduak 1, domeka, MRK lokalian

16:30 MRK ATE IREKIAK

abenduak 6, barixakua, Gaztetxian

22:30 ERASO

abenduak 8, domeka, Zabiel kultur etxian

18:00 BOHEMIAN RAPSODY FILMA

abenduak 13, barixakua, Gaztetxian

22:30 ROY VELOCES+LA ÚLTIMA BALA

abenduak 15, barixakua, Gaztetxian

17:30 SOLASALDIA Ines Osinaga (Gose) & Jurgi Ekiza (Willis)

abenduak 20, barixakua, Gaztetxian

22:30 KOKEIN

abenduak 21, zapatua, Gaztetxian

22:30 MRK GAUA

abenduak 27, barixakua, Gaztetxian

22:30 KOBAN

EMANALDI GUZTIAK DUAN

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

azaroak 17, domeka

19:00 'La modista' film emanaldia

azaroak 25, astelehena

19:00 manifestazioa EMA gunetik + ekitaldia (Goiko plazan)

azaroak 30, zapatua

Egun osoan, Autodefentsa feminista ikastaroa

abenduak 14, zapatua

11:30 Hitzaldia,'Indarkeria matxista aztertzen"



Uzuri
RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio

DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

ELKARREKIN HEZTEN

Samiela









GURE ETXEA EZAGUTU NAHI?

ZATOZ GURERA!

Hitzordua nahi izanez gero, deitu 943603195 zenbakira edo idatzi helbide honetara:

zuzendaritza@samiela.eus

Ongi etorria izango zara!

MATRIKULAZIO EPEA URTE OSOAN ZABALIK

ANTZERKIAZ BLAI 2019



AZAROA

ABENDUA

08

AZAROA | BARIKUA |
19:00 | Zabielen
"Txarriboda"
antzezlana.
HIKA teatroa

17

AZAROA | DOMEKA |
18:00 | Zabielen
"Harro nago"
ZIRTAKA
antzerki taldea
Haurrentzako
antzerkia

24

AZAROA | DOMEKA |
19:00 | Zabielen
"Argazkiak" eta
"Beldurrari aurre egin"
Goizeko Izarra
antzerki taldea

Mutrikuko Udala

01

ABENDUA | DOMEKA |
19:00 | Zabielen
"RITA" antzezlana.
TXALO produkzioak
SARRERA: 5 euro

13

ABENDUA | BARIKUA |
19:00 | Zabielen
"Sorpresadun pisua"
eta "Ligatzeko klaseak"
Akelarre antzerki taldea

15

ABENDUA | DOMEKA |
19:00 | Zabielen
"Roboten denda",
"Neskak, mendia eta
beste guztiak" eta
"Kontziaren epaiketa"
Akelarre antzerki taldea

ARGAZKIAK Ander Akyurt